

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000001078

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA\_DEK0563**Xedea:** PLASTIKOZKO ESKULARRUAK**Plastikozko eskularruak hornitzeko kontratua esleitzea onartzea.**

Espediente zk.: IDA\_DEK\_0563;96-PRE/20

**Aurrekariak**

**Lehenengoa:** COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

**Bigarrena:** COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

**Hirugarrena:** 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea erabagi zan, onartutako Alarma Egoerak iraun bitarteko eraginagaz.

**Laugarrena:** COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko, baharrezkoa da, emergentziaz, maskara kirurgikoen hornidura kontratatzea.

**Hori horrela, EQUIPAMIENTOS J2, SL B95080073 enpresaren 2020-04-28 datako 2020116 zenbakidun 145,00 euroko fakturea aurkeztu dau Udal Arrisku Teknikariak.**

**Argudioak**

**Lehenengoa:** 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aldarrikatutako Emergentzia egoerak, besteak beste, kontratazinoan dauka eragina, beti be COVIK-19ak sortutako egoeragaz lotura zuzena daukeen kasuetan.

Eta esleipen honegaz, COVIK-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, behar-beharrezkoa dan **20.000 unitate plastikozko eskunarru hornidura** kontratatu gura da, **Arrisku teknikariaren 2020-05-04ko txostenean agertu bezala.**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400041CB300T6J1P9Z4M8N5

**Sinadurea eta data**ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2020  
11:47:54EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DEK0563

Data: 04/05/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

**Bigarrena:** Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua arabera, emergentzia egoera beharrezkoak diran kontratazioak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazio espedientea izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

Eta kontratuaren exekuzioa hasteko epea, ezingo dau izan hilabete baino handiagoa.

**Hirugarrena:** Esleipena onartzeko ahalmenari jagokenez, Toki Erakunde Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko.

### ERABAKIA

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabaki dau Alkateak:

**LEHENENGOA:** 20.000 unitate plastikozko eskunarru emoteko hornidura kontratua, emergentziaz, EQUIPAMIENTOS J2, SL B95080073 IFZ zenbakidun enpreari esleitzea, 120,00 eurotan BEZaz kanpo, (BEZari jagokun zenbatekoa: 25,20 euro). DANATARA: 145,20 euro eta esleipendunak aurkeztutako faktureagaz bat.

**BIGARRENA:** 145,20 eurotako gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa ez dagoenez, erabagi hau hartzen danean, jagokun kreditu zuzkidura egiteko agindua emotea Ekonomia Sailari.

**HIRUGARRENA:** Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua emotea eta, ohartarazotea, kontratuaren exekuzioa erabagi honen jakinarazpena jaso eta gehieneko hilabeteko epean hasiko ez baleu, esleipena bertan behera geratuko dala.

**BOSGARRENA:** Esleipendunari, lehiatzaileari, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.


**SEIGARRENA:** Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkateza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.



**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinan .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E400041CB300T6J1P9Z4M8N5</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2020 11:47:54</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0563</p> <p>Fecha: 04/05/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	--

